

TOLOSAKO JAI-GUNEETAN ETA GAUEKO AISIALDIAN SEXU INDARKERIA PREBENITZEKO ETA HORREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA



Emakumeen eta sexualitate eta genero ez normatiboa duten pertsonen sexu-askatasuna errespetatzen dituzten espazioak sustatzeko protokoloa

Aurkibidea

1. Abiapuntua	3
2. Indarkeria matxistak tabernetan: Markoa	4
Protokoloaren kontzeptuak	4
3. Protokoloa	6
Arloak.....	6
Protokoloa aplikatuko dutenentzako oinarrizko irizpideak.....	7
Prebentzioa	8
1go eszenatokia (ez larria)	9
2. eszenatokia (sexu eraso edo eraso larria)	11
4. Eranskinak	13
Protokoloari atxikimendua.....	13
Ebaluazio fitxa	14
Ebaluazio orokorra.....	14
Komunikazio baliabideak tabernarentzako.....	14
Erasotuarentzako esku-orria	15

1. Abiapuntua

Protokolo hau Jai Berdinzaleen Behatokiak duen planean kokatzen da, eta identifikatutako behar bati erantzuten dio, eta Berdintasun sailetik zuzentzen da.

Nolabait jaietan Indarkeria aurre egiteko ardura aspaldikoa da, alde batetik, momentu honetan herri mailan indarkeria matxistei aurre egiteko *1. Protokoloa* indarrean dago, bestetik jaietan indarkeria jasotzen duten emakumeentzako* zerbitzuak ere ezarri dira, *Indarkeria Matxisten Kontrako Zerbitzuaren* bitartez. Jakin badakigu Txoznagunean era protokolo ezberdinak egon dira aktibo. Jaietan edo jai giroan, jakin badakigu, ongi pasatzeko espazioak ezberdin asko daudela eta horietako bat tabernak dira. Gaur arte eremu honekin lanketa txiki batzuk egin dira (puntu moreak eta gomendio eskutitzak banatu, hala nola), baina modu sakonagoan gaiari heltzeko unea dela hausnartu ostean, protokolo hau martxan jartzea erabaki da.

Protokolo honek urteetan zehar jaietan martxan egon den *"Libre non nahi"* kanpaina osatzera dator. Beraz, kanpaina honek defendatzen duen ikuspegian oinarrituz protokoloa osatu da.

Protokoloa hobeto inplementatzeko helburuarekin Udalak protokoloaren bideragarritasuna kontrastatu eta baloratu du herriko hainbat tabernarekin eta jai giroko eragileekin ondorengo inplementazioa hobetzeko.

Protokoloa hau honi erantzutera dator:

1. Protokolo hau komunitatean gaiarekiko dagoen konpromezuan pausu bat gehiago ematera dator.
2. Tolosan, indarkeria matxisten inguruko ardura soziala azken urteotan areagotu da eta tabernak duten erantzukizunari heldu nahiean, ostalaritzari tresnak ematea ezinbestekoa da errealitate honen aurrean erantzuteko prest egoteko.
3. Ostalaritza sektorea batera eta adostuta jardutea, sektorearentzat eraginkorrak eta erabilgarriak izango diren prebentzio eta arreta emateko moduak bateratzeko, eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea handitze aldera.

2. Indarkeria matxistak jai giroan: Markoa

Festak eta gaueko aisialdia dibertsioa gailentzen den denbora eta espazioa osatzen duten arren, pertsona guztiek ezin dute aukera berdintasunean disfrutatu. Emakumeen aurkako indarkeria-adierazpenak ugaritu egiten dira. Era berean, hainbat azterlanek adierazten dutenez, zuriak ez diren emakumeak, klase sozial apalekoak direnak edo genero/sexu ez normatiboa duten pertsonen indarkeria eta estigmatizazioak jasotzeko arriskua ere areagotu egiten da.

Festa giroak ez du berez eraso matxistarik bultzatzen. Festan eta gau giroan sistema heteropatriarkala erreproduzitzen da eguneko beste edozein unetan bezala. Egunero gertatzen den indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan kokatzea garrantzitsua da, baina bai onartu behar dela, jai giroak askotan sistemaren ezaugarri guztiak modu kondensatuan adierazteko aukera gehiago ematen dituela.

Horregatik, jaiak eta gaua zaindu beharreko eremuak dira, emakumeak eta generoaren arau sozialak transgreditzen dituzten pertsona orok askatasunez bizitzeko aukera izateko.

Mota askotariko indarkeriak gerta daitezke jai giroan, baina ohikoenak eraso sexualak edo jazarpen egoerak izaten dira, baita kaptazio eta hurbiltzeko espazioak izan daitezke gero eraso beste espazio batean gertatzeko.

Protokoloaren kontzeptuak

Sarri indarkeria hau izendatzeko hainbat kontzeptu ezberdin erabiltzen dira, baina protokolo honek Gipuzkoako Foru Aldundiko terminologia Tolosako II. Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa oinarri hartuta marko orokor hau ezarriko du eskuhartzeak definitzeko.



Emakumeen aurkako Indarkeria matxista:

Emakume eta gizonen artean dagoen hierarkia sozialaren arabera gauzatzen diren indarkeriazko kontrol eta botere egikaritzeak, edozein modutan adierazita daudela ere. Hau da, "maskulinoak" "femeninoak" baino gehiago izatean oinarritutako indarkeriazko jokabide guztiak.

Indarkeriaren marko orokorra zehaztu ostean, protokoloak ze indarkeria zehatzei erantzuten dion adierazi behar du. Protokoloa jarduteko gida bat da eta tabernen testuinguruan indarkeria batzuk beste batzuk baino gehiago agertu daitezkeen

neurrian, horri erantzun behar dio. Beraz, **indarkeria matxisten markoan honakoak dira kontutan hartuko dituen erasoen tipologia**, beti ere Tolosako II. protokoloan eta legean oinarrituta:



Eraso Sexistak:

larderia-izaera duten eta emakume baten osotasun pertsonalaren eta askatasunaren kontra egiten diren jokamolde guztiak: irainak, mehatxuak eta izutzerak, behartzera, kontrolatzera ta abarretara zuzendutako ekintzak.



Sexu Erasok:

Sexu-indarkeriatzat hartzen dira baimendu gabeko sexu-ekintzak edo edozein eremu publiko edo pribatutan bizitza sexuala askatasunez garatzea baldintzatzen dutenak, eta horren barruan sartzen dira sexu-erasoa, sexu-jazarpena eta besteren prostituzioaren esplotazioa eta eremu digitalean egindako sexu-indarkeriak; horren barruan sartzen da bitarteko teknologikoen bidez sexu-indarkeriako ekintzak hedatzea, baimendu gabeko pornografia eta estortsio sexuala.



Protokolo honek indarkeriatzat hartzen ditu ere, tradizionalki esleitutako sexu/genero-eskema tradizionalak hausten dituzten pertsonen aurka erabiltzen diren forma guztiak: intersex, transgenero, transexual, homosexual eta lesbianak.

Jarduteko proportzionaltasunaren mesedetan eta biktima beharrik gabe ez biktimizatzeko helburuarekin, indarkeria-motaren arabera ekintza desberdinak egiteko moduak adierazten ditugu. Beraz, esku-hartze intentsiboagoa behar duten erasoen aurrean jarduteko modua bateratu da. Eta beste alde batetik, beste abordatze desberdin bat ezartzen da arinagoak izan daitezkeen kasuei dagokienez.

Ikerketa ugari argi erakusten dute sexu-indarkeria gizonezkoek bakarrik egiten dutela praktikan, eta erasotutako gehienak emakumeak direla. Hala ere, erasotutako gizonezkoak, neurri txikiagoan, ere badaude. Beraz, **protokolo hau aplikatuko da baldin eta erasotzailea gizonezkoa bada, eta modu berean erabili ahalko da erasotua emakumezkoa edo LGTBQ+ kolektiboko kidea bada.**

3. Protokoloa

Arloak

Protokolo honen aplikazio-zuzenean **3 arlo nagusi** daude eta 3ak kontutan hartzekoak dira neurri berdinean:



Prebentzioa:

Sexu-askatasuna errespetatzen duten espazioak sustatzeko beharrezkoak diren tresnak diseinatu eta aplikatu, batez ere emakumeena eta sexualitateak eta genero ez normatiboak dituzten pertsonena.



Detekzioa:

Momentukoak edo izan daitezkeen eraso matxista egoerak identifikatzea.



Atentzioa eta informazioa:

Erasoen aurrean inplikaturako pertsona bakoitzarekin jardutea beharrezkoak diren tresnak erabiliz.

Protokoloa aplikatuko dutenentzako oinarriko irizpideak



Erasotuak, beti, lehentasuna du, ez erasotzailea identifikatzea edo delituaren jarraipena.



Erasotua ez jarri zalantzan eta bere erabaki ahalmena errespetatu. Askotan, bere erabakiak ez ditugu konpartituko eta erasoak jaso duenarengandik beste erabaki batzuk espero ditugu, baina hori guk pertsona horrekiko ditugun espektatibak dira, eta gure espektatibak diren heinean hauen kudeaketa guri dagokigu.



Protokoloaren berri eman bezeroei, horretarako dauden **euskarriak erabili.**



Informazio zehatza eta zuzena eman, inoiz ez eman zure iritzia gertatu denaren inguruan.



Zurrunmurrak ekidin eta informazioaren kudeaketa arduratsua izan.



Erasotzailea arbuiatu eta ez izan konplizitate keinurik.



Langileek ere erasoak jaso dezakete ez ahaztu. Protokoloa aplikatu.

Prebentzioa



Tabernarentzako egindako protokoloaren **euskarriak leku ikusgarrietan jarri.**



Tabernako **dekorazioa ez** dela **sexista** ziurtatu.



Lokal bakoitzak bere **eremu ilunak, ezkutukoak** edo erabiltzaileen zaurgarritasuna edo bakardadea errazten dutenak **ebalatu** behar ditu. Eremu horiek lehentasun handienekotzat hartu behar dira aretoaren barrualdea zaintzeko.



Lantaldearen formakuntza jarraitua garrantzitsua da tabernan egon daitezkeen erasoak identifikatu ahal izateko eta hauen aurrean segurtasunarekin jokatzeko.

1go eszenatokia (ez larria)

1. DETEKZIOA: EGIN

Eraso baten lekuko **bazara** edo **bezeroa** edo erasotua abisua ematen badizu, gerturatu, zure burua identifikatu eta **galdetu emakumeari** ea ondo dagoen eta **laguntza behar duen**:



Baietz erantzuten badu:

Joan harekin **toki lasai** batera eta bermatu ez dela bakarrik geratzen.



Ezetz erantzuten badu:

Esan tabernak **protokolo** bat duela eta behar duenerako hor zaudela.



Baldintza onetan ez balego:

Eskaini toki lasai bat bere onera etortzeko eta ingurukoei abisua eman edo **udaltzaingoei deitu**:

943 675 858

Zuk detektatu duzun **alkohol edo droga gehiegi kontsumitu duen pertsona batengana** norbait asmo **sexualekin hurbiltzen bada**, eta harekin kontaktuan jartzen tematzen bada:

- 1 Hurbildu** detektatutako/atzemandako pertsonarengana eta tabernan gustura dagoen galdetu.
- 2** Deseroso badago pertsona baten jarrera temati edo jazarleagatik: ustezko jazarleari **lehenbiziko oharra eman**. Bigarren abisuan, tabernatik kanporatu.
- 3** Kontzientzia galera larririk ez badu, **bere lagunak bilatu eta abisatu**. Bere lagunak topatu badituzu zure jarduna amaitu da. Ez badituzu topatu edo ez badira arduratzen, eskaini leku babestu batera joatea eta suspertu arte utzi.
- 4** Kontzientzia galera larria badu, **leku babestu batera eraman** eta suspertu arte utzi. 112ra deitu.

2. ATENTZIOA ETA INFORMAZIOA: LAGUNDU



Dauden baliabideen informazioa eman, errespetutik eta presiorik gabe.



Alde egin baino lehen, **ziurtatu ongi dagoela eta ez dela bakarrik joaten**. Beharrezkoa balitz taxi bati deitzeko laguntza eskaini.



ZER EGIN ERASOTZAILEAREKIN:

Lehentasuna beti erasotutako pertsonak du, hori ez ahaztu.

1. Aukera badago erasotzailea edo jazarlea **identifikatu**.
2. Bere jarrerarekin jarraitzeko asmoa badu tabernatik **kaleratua izango dela abisatu**.
3. Erasotzailea edo jazarlea **zelatatu** eta bere jarrerarekin jarraitzen badu edo norbaitek salatzen badu, lokaletik **kaleratu** eta ekidin gau horretan berriz sartzea. Onarpen-politika erabili erasotzaileak lokaletik botatzeko.

3. BALORAZIOA

Hurrengo egunean Berdintasun teknikariari deitu eta gertatutakoaren berri eman.

2. eszenatokia (sexu eraso edo eraso larria)

1. DETEKZIOA: EGIN

Eraso baten **lekuko bazara edo bezeroak edo erasotutak abisua ematen badizu, gerturatu, zure burua lokaleko langile bezala identifikatu eta:**

- 1** Erasotuari **lehen bait lehen arreta eman**, berarekin hitz egin eta ez dagoela arriskuan ziurtatu.
- 2** Honetarako egokitutako **toki lasaira lagundu**. Tabernan **lagunen bat** duen galdetu arreta jasotzen duen bitartean lagunduta egoteko. Tabernako protokolo arduradunari abisatu.
→ *Eraso sexual baten aurrean gomendatu arropaz ez aldatzea ezta bere burua garbitzea. Ahozko eraso sexual baten aurrean ez eskaini urik ezta janaririk.*
- 3** **Galde iezaiozu zer nahi duen** eta horren arabera **udaltzaingoei deitu: 943 675 858**.
→ *Gogora iezaiozu udaltzaingoari deitzeak ez duela zertan salaketa bat jartzea esan nahi.*
- 4** Arreta urgentea beharko balu **112ra deitu** (hemen zerbitzu medikuak eta polizia eskuratuko dira).
- 5** Ez badu nahi inongo zerbitzuetara deitzea, 10 puntutako **esku-orria eman**.
- 6** **Ziurtatu ez dela bakarrik joaten.**

2. ATENTZIOA ETA INFORMAZIOA: LAGUNDU



Lasaitasuna eta konfiantza eskaini, **enpatiaz jokatu** eta ulerkorra izan.



Dauden baliabideen **informazioa eman**, errespetutik eta presiorik gabe.



ZER EGIN ERASOTZAILEAREKIN:

Lehentasuna beti erasotutako pertsonak du, hori ez ahaztu.

1. **Lehentasuna beti erasotutako pertsonak du,** hori ez ahaztu.
2. Aukera badago, **erasotzailea identifikatu**. Horretarako, lankideei edo bezeroei **laguntza eskatu** zure burua eta beste inorena arriskuan jarri gabe. Ondoren, poliziaren esku utzi dezakezu edo baloratu bestelako eskuhartzerik behar duzun.

3. BALORAZIOA

Hurrengo egunean Berdintasun teknikariari deitu eta gertatutakoaren berri eman.

4. Eranskinak

Protokoloari atxikimendua

Izen abizena: _____

Tabernaren izena: _____

Agiri honen bidez sinatzen duen tabernako ordezkariak bat egiten du "festetako eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan eraso matxistei aurre egiteko eta arreata emateko protokoloarekin".

Prokolo hau sinatzen dugun lokalok:

- ✓ Geure egiten dugu Tolosako herritarren konpromisoa emakumeen aurkako eta sexualitate eta genero ez normatiboa duten pertsonen indarkeriarik gabeko hiri baten alde, guztiontzako askatasun eremuak eraikitzearen alde, bizitzaren esparru guztietan.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria eraikuntza sozial baten emaitza da, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen emaitza. Hortaz, desagerrarazteko errespetuzko eta askatasunezko eremuak sortu behar dira, non erasotzaileek jakingo baitute tokiz kanpo daudela, eta emakumeak libre izanen dira haien eskubide guztiak erabiltzeko, baita aisialdiaz gozatzeko duten eskubidea ere.
- ✓ Indarkeriaren arrazoi bakarra indarkeria erabiltzea erabakitzen dutenen erabakia da, bizi dugun desparekotasunaren kultura honen fruitu. Aisialdiko guneetan, tabernetan, dantzalekuetan zein festa giroan ordena soziala erreproduzitu egiten da. Horregatik aisialdiko egoerek ezin dute inor indarkeria hori justifikatzera eraman, ezta erasotzaileei inpunitate sentsazio bat eman ere.

Horregatik, errespetuzko aisialdi arduratsua sortzeko beharrezko baldintza sortzeko konpromisoa hartzen dugu, eta eskubideak zein askatasunak bermatzeko eraz jotatuko dugu.

**FESTAZ
GOZATZERO
ASKE!**

ERASO MATXISTA ETA
ARRAZISTARIK EZ.

Ebaluazio fitxa

Fitxa hau, eskuhartze bat egon denean Berdintasun teknikariak beteko du jasotako informazioarekin:

- Tabernaren izena: _____
- Bete duenaren izen abizena: _____
- Eraso gertatutako eguna eta ordua: _____

Zer da gertatu dena?

Zein izan da Tabernaren jokaera?

Zeozer ikasi duzue gertaera eta eskuhartzetik? Zalantzak/kezkak sortu zaizkizue?

Ebaluazio orokorra

Urtean bitan berdintasun sailarekin bilera bat egingo da protokoloaren inguruko balorazioa egiteko.

Komunikazio baliabideak tabernarentzako

#JokaSano

- Kartela logoarekin eta telefonoarekin tabernako atean jartzeko
- Komunekeo ispiluentzako pegatina
- Komunekeo ateentzako edo pasako lekuetan jartzeko
- Tabernak protokoloa duela adierazten duen kartela
- Esku-orri orokorrak
- Erasotuarentzako esku-orria

Erasotuarentzako esku-orria

Tolosak sexu-harreman askeak eta baimenduak defendatzen ditu.
Inork zure sexu-askatasuna eragozten badu, salatu dezakezu. Informa zaitetz!

Hona ezagutu behar dituzun puntuak:

- 1** Salatu ala ez salatu, baduzu **eskubidea laguntza eta arta psikologikoa, sanitarioa eta legala jasotzeko**, jasan duzun erasoak zure erabaki moduan bideratzeko.
- 2** **Eskubide horiek berberak** izango dituzu zure **administrazio-egoera irregularra** izanda ere.
- 3** **Garrantzitsua da osasun-etxe batera ahalik eta azkarren joatea**, erasoan eragindako kalteari aurre egiteko laguntza jaso eta frogak erregistratze aldera. Sexu-erasoaren ondorengo lehen orduak funtsezkoak dira ikerketaren emaitzak ongi bideratu daitezela bermatzeko. Horregatik, gomendatzen dizugu ez garbitzea, duxarik ez hartzea eta ez aldatzea arropaz, eta erasoak ahotik jasoz gero, ez hartu ez jakirik ez edaririk osasun-etxera joan baino lehen.
- 4** **Asuncion Klinika da larrialdietarako erreferentziatzeko osasun zerbitzua** Tolosan. Baliteke azterketa forentsea egiteko, Donostiako Ospitalera bideratzea.
- 5** **Ospitalean egonda erasoak salatzea erabakitzen baduzu, ospitale berak hartuko du ardura** lesio-partea dagokion guardiako epaitegira igortzeko eta hala polizia nola mediku forentseari abisua emateko.
- 6** Ospitalean egonda ez baduzu erasoak salatu nahi, **ospitalea beharturik dago** agintari judizialei edozein sexu-erasoren **berri emateko**, zure baimenarekin edo baimenik gabe, baina horrek ez du prozedura judizialik zertan abiarazi.
- 7** Halaber, **aukera duzu ertzain-etxe edo guardiako epaitegi hurbilenean salaketa zuzenean aurkezteko**. Bietan, eskubidea duzu abokatuen laguntza jasotzeko. Laguntza hori eskatzeko aholkatzen dizugu, **abokatu batek zaindu dezan prozesuaren funtzionamendu egokia**.
- 8** **Solilik salaketa aurkeztuta abiatuko da erasotzailearen kontrako zigor-prozedura**. Prozedura penala gogorra izan daiteke, eta ez du ziurtatzen erasotzailearentzat "bidezko" kondenarik, baina erasotzaileari aurre egiteko eta zigorgabetasuna saihesteko modu bakarra da.
- 9** Arreta feministan eta sexu-erasoetan esperientzia duten zerbitzu juridiko eta psikologiko espezializatuak ere eskura dituzu Tolosan. Horretarako, Andragora, Tolosaldeko **Emakumeen Etxera, deitu dezakezu: 943 00 89 67**.
- 10** **Salaketa jartzeko denbora tarte bat duzu**, eta berehala egin nahi ez baduzu, ospitalera joan zaitzake prebentzio-tratamenduak lortzea eta probak lortzea, aurrerago egin nahi baduzu.



Informazio edo laguntza gehiago behar duzu?

Udaleko Gizarte Zerbitzuetara (943 654 466 | extensión 911 Plaza zaharra 6b) edo Andragora Emakumeen etxera (943 00 89 67 Emakumeon plaza, 1, tolosa) jo dezakezu.

SATEVI

Eraso bat jasan duten **emakumeak artatu eta eskura dituzten baliabide zein zerbitzuez informatzeko 24 orduko telefono-zerbitzua** da SATEVI.

Zerbitzuak 51 hizkuntzatan erantzuten du, eta prestatuta dago entzuteko edota hitz egiteko desgaitasuna dutenak artatzeko, EAE mailako baliabide honetan, biktimak diren emakume guztiak artatzen dira eta, baita ere, emakume horien inguruko senideak eta gertukoak, edo informazioa eta aholkularitza eskatzen duten profesionalak.

Zerbitzua berehalakoa da, **anonimoa, konfidentziala eta doakoa**, eta ez du arrastorik uzten telefono-fakturan.



900 840 111 (24 ordu eta 365 egun)

SCFUS

Gipuzkoan indarkeria matxista jasaten duten emakumeen urgentziatzeko beharrei erantzuten die Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak. Gizarte Zerbitzuen lan ordutegitik kanpo baliabide honetara joko da. Lehen balorazioa egin ostean, emakumea dagokion baliabide eta zerbitzuetara bideratzen dute. Hortik aurrera, Tokiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua arduratzen da jarraipena egiteaz. Indarkeria jasan duenak adin txikiak edo beste pertsonak baditu bere zaintzapean, zerbitzu hau arduratzen da esku hartzeaz.



943 224 411 (07:00-22:00) / 112 (22:00-07:00)

Ordutegia: **24 ordu eta 365 egun**

(erasoa eman eta hurrengo 48 ordutara ere atenditzen du)

